

69. FITXA BIZKAIA – Bizkaiko entitate lokalek 2025erako sustaturiko herri- eta gizarte-partaidetzarako proiektuetarako dirulaguntzak.

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak.

Sarbide-esteka: [Hasiara - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 132/2024 FORU DEKRETUA, abenduaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baitira 2025erako dirulaguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdia, Bizkaiko entitate lokalek sustaturiko herri- eta gizarte-partaidetzarako proiektuetarako.](#)

Eremuak: Herri- eta gizarte- partaidetza

Zenbatekoa: 400.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/01/27tik 2025/02/14ko 13:30era arte.

Laburpena

Udalerriei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak dira, herri- eta gizarte-partaidetzarako proiektuetarako, herritarrek beren ekarpena egin dezaten zehazteko zer politika publiko nahi diren eta nola gauzatu nahiz gestionatu daitezkeen politika horiek, 2025eko ekitaldian.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Herritarren eta gizartearen partaidetzarako proiektuak hiru jarduketa-arloren bitartez jarriko dira praktikan:

1. arloa: Herri- eta gizarte-partaidetzako prozesuak garatzea proiektuan sarturiko udalerrriaren eta/edo mankomunitatearen garapen jasangarrirako garrantzitsuak diren eremuetan.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Aurretiko analisi-lanetarako eta partaidetza-prozesuak diseinatzeko, antolatzeko eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Partaidetza-prozesuen garapenari lotutako gastu logistikoak.
3. Partaidetza-prozesuen komunikazio-gastuak, barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Partaidetza-prozesua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

2. arloa: Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko prozesuak garatzea, herritarren eta entitate lokalaren arteko harreman digitala sustatzeko.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Partaidetza-prozesuak diseinatzeko, antolatzeke eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Partaidetza-prozesuen garapenari lotutako gastu logistikoak.
3. Partaidetza-prozesuen komunikazio-gastuak, barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Partaidetza-prozesua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

3. arloa: Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko gune eta organo formalak sortzea, biziberritzea eta hobetzea.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak aztertzeke, diseinatzeko, antolatzeke eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak aztertzeari, diseinatzeari, antolatzeari eta dinamizatzeari lotutako gastu logistikoak.
3. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo egonkorak aztertu, diseinatu, antolatu eta dinamizatzeko prozesuen komunikazio-gastuak. Barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Proiektua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz laguntzeko eskatzen diren proiektuak **2025eko ekitaldian** egin beharko dira.